

2014ko urriaren 4a

HASIEREA BARRIAK BIDAIDE KULTUREA MUSIKEA AGENDA BARRIKETAN BLOGAK BOTAZINOAK JO BEGIZ
 BIZKAIE azokak antzerkia bertsoan erakusketak jantzea jardunaldiak **kulturbiz** literatura sariak-autortzak zinemea

hasiera > kultura > kulturbiz > Ernesto Pratek 'Orpoz orpo' bere bigarren nobelean aurkeztu dau

Kultura: Literatura


Ernesto Pratek 'Orpoz orpo' bere bigarren nobelean aurkeztu dau

[f](#) [t](#) Zabald [Inprimidu](#) [Bialdu lagun bati](#)

Euskal gatazlea, sexua eta erotismoa dira Ernesto Praten *Orpoz orpo* (**Txalaparta**) liburuko zutabe nagusiak. Karlos da protagonista, ezker abertzalean inguruan dabilen gaztea. Halako baten, iges egin behar dau, eta igesaldi horretan behin eta barriz agiri da sexuagaz dituan gorabeherak.

Istoria ez da autobiografikoa, egileak berak aurkezpenean azaldu ebanez, baina bere bizipenekaz lotura handia dauka. Izan be, Pratek 2008an ospa egin behar izan eban, eta ostenduta egon zan, harik eta 2012an atxilotu eben arte. Igesaldian eta kartzelan idatzi eban nobelean zatirik handiena, baina amaitu, kalean. Denporea zelaz bete ez ekiela ekin eutson idazteari. *Literotura* bilduman kaleratu dau Txalaparta etxeak.

Ernesto Prat Urzainki (Berriozar, 1978) arlo askotan ibili da beharrean. Skalariki taldeagaz sei urte egin zituan eta Kalapite taldeko kidea izan zan. 2009an, *Pyrenaica* aldizkari mendi ipuinen IV. lehiaketan lehen saria irabazi eban, *Free Peltier Little Horse-n* lanagaz, eta 2012an Iruñeko Udalak antolatutako Egile barrientzako euskerazko XXIII. literatur lehiaketan hirugarren saria lortu eban, *Lozen izan nintzen* beharrari esker. 2013. urtean atera eban lehenengo nobelean, *Hiru ilargi laurden*.



Bizkaie!


[Iruzkinak 0](#) [Inprimidu](#) [Bialdu lagun bati](#) [f](#) [t](#) Zabald

Zure iruzkina

* Markatuta dagoenak bete beharrekoak dira

Izena *

E-Posta *



Idatzi laukian alboko letrak *

Bidali

E-posta helbidea ez da publikatuko. Konfirmazioetarako bakarrik erabiliko da. Bizkaie! egiten dogunon partez, eskerrik asko mendebaldeko euskalkian idatzitako Sareko aldizkari bakarra irakurteagaitik.



agenda

- Jaiak - 2014-10-05
Errebonbiloak 2014
- Bertsolaritza - 2014-10-04 17:00etan
Xilaba 2014. I. Kanporaketea. Aitor Servier, Egoitz Zelaia, Gillen...
- Musikea - 2014-10-03 21:00etan
SWANS + AINARA LEGARDON + PHARMAKON + YOB + PALLBEARER

[irakurriena](#) [iruzkinduena](#)

- 1 'Linguae Vasconum Primitiae' (2014) danon eskura - 320 aldiz
- 2 Jantza tradizionala unibersidadera helduko da, Aiko ta... - 228 aldiz
- 3 Joanes Igeregi Santamaria: 'Hizkuntza indigenek, ofizi... - 178 aldiz

bizkaie! facebookeko jariora

Bizkaie!
Atsegin du! Atsegin duzu.

Bizkaie!
Duela 21 ordu

Makinatxu bat ekitaldi antolatu dira astegienean Ondarearen Europako Jardunaldiak dirala eta. Gaur, 19:00etan, 'Ibilbidea denporan eta espazioan zehar, Getxoko etxeetatik' berbaldia emongo dau Jose Maria Beaskoetxeak, Getxoko Alkartegian

Zuk eta beste 1.859(e)k atsegin duzue Bizkaie!

bizkaie! sarean